



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2018/03/11

Bilera zenbakia: 04

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan udaletxean

Parte-hartzaileak: Rosi, Ainhoa, Marijo, Amaia, Tere, Xabi, Unai eta Maddi

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA

- Ipuin kontalaria _ apirilaren 6an

Gutako inor ez zen bertan egon, baina Maitek esan zuenez ondo joan zen. Hala ere jende gutxi hurbildu zen, izan ere, datak ere ez ziren oso aproposak. Batzordean komentatu da again hurrengo urterako data seguragoetan egitea komeniko litzatekeela. Festa ingurua ere data ona izan liteke, edo ikasturte amaieran...

HEMENDIK AURRERAKOAK

- Bodegara irteera

Jende gehiegi apuntatu ez bada ere, apuntatutakoak joango dira.

2. EUSKARA

Unai Aldasoro eta Marijo Jauregi, Euskara taldeko kideek aurtengo ikasturterako pentsaturiko ideia aurkeztu dute batzordean.

Lehendabizi, taldearen eta aurrera eramandako dinamiken egoera zein den azaldu dute. Mintzalagun bertan behera geratu da, jende falta dela eta, baina beharraren arabera berriro sortzea ez da baztertzeko, izan ere, euskaldun zahar asko prest daude, euskaldun berriak falta zaizkigu. Beraz, taldeetan zabalketa egiteko deia egin da, inork interesa izango balu taldearekin harremanetan jarri eta behintzat taldetxo txiki bat bideratzeko.

Ondoren, UEMAren laguntzaz aurrera eramaten diren beste kanpaina batzuen berri eman da: errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera, abizenak euskalduntzeko kanpaina, haur jaio berrien gurasoei banatzen zaien gutuna... Hau gehien bat udaletxetik bideratzen da, UEMAK bidalitako materiala erabiliz.

Azkenik, herrira begirako lanketa aurkeztu dute. Hasieran komentatu bezala, Itsasondoko bezalako herri batean, gabeziak ikusten baditugu ere, batzuetan zaila egiten da euskararen inguruko lanketa egitea, izan ere, herri euskalduna gara eta geu ere hala sentitzen gara.

Hori horrela, egunkarian irakurritako albiste batetik abiatuta sortu da ideia. Berriak argitaratu zuen artikulu batean, Siadeco enpresak eginiko azterketa baten datuak kaleratu zituzten, euskal kulturaren

kontsumoaren datuak hain zuzen ere. Azterketa honen arabera, euskarazko kontsumoa ez da euskaldunon erdira ere iristen.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
HURRENGO BILERA		
<p>Hurrengo bilera MAIATZAREN 9an izango da. GAIA: FRONTOIAREN OBRA DELA ETA KONTUAN IZAN BEHARREKOAK</p>		